

Euskal Herriko arkeologiaz eta emakume arkeologoez

Idoia Areizaga-Llorente

Euskal Herriko Unibertsitatea

Ainhoa Aranburu-Mendizabal

Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena

Euskal Herriko arkeologiak bertako Historiarekiko egin dituen ekarpenak ukaezinak dira. Horien atzean aurkitzen ditugun izen-abizenak baina, gizonezkoenak dira nagusiak. Lan honen helburua, hortaz, bigarren plano batean geratu diren emakume arkeologoen aportazioa aztertu eta azaleratzea da. Horretarako, hiru bloketan banatu dugu artikulua. Lehenik, generoaren arkeologiak izan duen eboluzioa aztertuko dugu, ikusezina zenetik, beharrezkoa bilakatu den arte. Honela, Espainian eta Euskal Herrian generoaren arkeologiari buruz egin diren ekintzak behatuz. Bigarrenik, Euskal Herriko emakumezko arkeologoak aztertuko ditugu, beraien aportazioa zein izan den erakusteko eta berezko izenak mahaigaineratzeko. Azkenik, euskal emakume arkeologoez beraien lan baldintzei buruz zein iritzi duten ikusiko dugu, hierarkia, lan postuak lortzeko aukerak eta erlazioak aztertuz, besteak beste.

Gako-hitzak: Euskal Herria, arkeologia, feminismoa, emakumeak, lanbidea.

Jasotze data: 2020ko martxoaren 11n

Onartze data: 2020ko maiatzaren 24an

Abstract

The contribution about History made by the Basque Country's archaeology it is irrefutable. But the names under the discoveries are all masculine. This article aims to study and show the silenced work done by women in the Basque archaeology. For that, firstly, we will study the evolution of Gender archaeology studying for it the activities done in the last thirty years, since it was invisible to it has been necessary. Secondly, we will show the contribution done by Basque women archaeologists. Lastly, we will talk about the opinion of Basque archaeologists about the employment situation they have currently, studying for it the hierarchy, job opportunities and the relationship between them, among others.

Key Words: Basque Country, Archaeology, feminism, women, job.

1. SARRERA

Historian zehar, mendebaldeko gizarteek ezarri dituzten *androzentrismoan* oinarritutako sistema patriarkalen ondorioz, generoen arteko ezberdintasunak oso definituak izan direla argi dago; orokorrean gizonen gailentasuna egon delarik. Banaketa honetan, genero bakoitzaren baloreak eta rolak zeharo determinaturik egon dira. Alde batetik, emakumearen rola ugalkortasunarekin eta afektibitatearekin izan da erlazionatuta, gizonarena berriz, alor publikoarekin eta landa-lanarekin. Testuinguru honetan, emakumea ikusezina bilakatu zen, bigarren plano batean geratuz. Hori dela eta, ez da erraza izan historiagileentzat, antropologoentzat edota arkeologoentzat emakumeen papera zein izan den ikustea. Hasteko, zaila izan delako emakumea ikergai bezala agertzea, eta jarraitzeko, emakumearentzako oso zaila izan baita ikerlanetan, ikerguneetan eta unibertsitatean sartzeta. Hori dela eta, artikulu honen helburua emakume arkeologoaren garrantzia aztertzea eta goraiatzeta da. Horretarako, lehenengo generoaren arkeologiaren definizioa aztertuko dugu eta ondoren historiografiaren bilakaeran zentratuko gara, azken urteetan egin diren aurrerapenak ezagutarazteko. Jarraitzeko, euskal arkeologian egon diren emakume aitzindariak buruz hitz egingo dugu. Amaitzeko, egun Euskal Herrian lan egiten duten zenbait emakume arkeologoei egindako galdeketaren emaitzak aztertuko ditugu.

1.1. Generoaren arkeologia.

Generoaren arkeologiak, kultura materialaren azterketaren bitartez, gizonak eta emakumeak historian zehar egindako ekintzak eta beraien arteko harremanak aztertzen ditu. Arkeologia feministak bestalde, generoaren arkeologiaren parte denak, emakumeak eraldaketa sozialean zein eragina izan duen aztertzen du, batik bat. Honela, generoaren arkeologiak generoen arteko erlazio sozialak aztertzen dituenez, askotan, pentsamendu feminista alde batera utzi izana eragotzi zaio: emakumea aztergai bezala alde batera utzi duelako, eta pentsamendu politikoarekin erlaziorik ez izaten saiatu delako. Hala ere, historian zehar egindako ikerketa ia guztiak gizonezkoaren historian zentratu direnez, alor honetako gaur egungo ikerketa gehienak emakumea aztertzea dute helburu.

Emakumearen sarrera arkeologiaren lan munduan ez da azkarra ez erraza izan, beste lan arloetan gertatu den bezala. Orokorrean, generoari buruzko ikerketen jabetza emakumeena izan zen, batez ere 1970. hamarkadan hasi zirenak baina 1980. hamarkadan indarra hartuko zutenak. Espainiaren kasuan, historiaurrean eman ziren emakumea aztertze bidearen lehenengo pausuak, garaiko giza-harremanak aztertzen batez ere. Kasu honetan beraz, ikerketa gehienek gizakiaren eboluzioa eta emakume ehiztari-biltzaileak aztertuko zituzten. Baina informazioa lortu ahal izateko, aurretik egindako ikerketak berriki egin behar ziren, eta horiek berrikustea ez zen batere erraza, materiala testuingurutik at zegoelako eta hain garrantzitsua den inguruko informazioa galdu egiten zelako. Beraz,

ikerketa-estrategia berriak sortu behar izan ziren, horien artean, kategorizazio-eskemak, emakumearen eta gizonaren arteko erlazioak aztertzeke balioko duten analisiak, eta abar, aurkitzen ditugularik (Falcó Martí, 2003: 148). Honen ondoren, ikergai berriak azaltzen joan ziren diziplina honen barnean, alde batetik, emakume arkeologoen historia, eta bestetik, emakume arkeologoen egungo lanbide egoera, besteak beste.

1.2. Historiografiaren bilakaera.

1980ko hamarkadatik aurrera Europa mailan emakumeari eta arkeologiari buruz egin diren lanak ugariak izan dira, baina bi gai hauek elkarrekin azertu dituztenak ez dira nagusitu. Hasiera batean, Eskandinaviako eta Britainia Handiko ikerlariak izango dira generoa diziplina gehien barne sartzen ahaleginduko direnak. Beraien helburua, zentzu liberal eta sinbolikoan oinarrituriko berdintasuna aurkitzea zen, ikergai ezberdinak sortuz; honen adierazle, emakume ehiztariei buruzko lanak topatzen ditugu (Sorensen, 1999: 114). Bigarren etapa berriz, erabilitako kontzeptuen problematikan egongo da oinarritua. Gaur egun oraindik ere, helburua garai historiko ezberdinetako generoen arteko erlazioa aztertzea izaten jarraitzen du; baina oraindik ere gehien azertu den alorra historiaurrea da. Arkeologiaren barruan, 2010.hamarkada iritsi arte eman ziren aurrerapenak ez ziren oso handiak izan eta hau ez dugu Espainian bakarrik ikusten, Italian, Frantzia, Portugalen, Grezian eta Alemanian egoera berdina ikusi zitekeelako (Falcó Martí, 2003: 151). Beste alor zientifikoetan berriz, atzerapen hau ez da hain nabaria izan, generoari buruz egin diren ikerketak oso sakonak izan baitira, batez ere, soziologia, geografia edo filosofia bezalako alorretan, besteak beste.

Espainia mailan emandako atzerapena ulertu nahiko bagenu, bertako arkeologiak izandako eraldaketa azertu beharko genuke. Nahiz eta, XIX. mendeko eta egungo arkeologiaren ezberdintasun nabariena eskema teoriko-historikoan eta metodologian ikus daiteken, beste eremu askotan estatiko mantendu izan da, oinarriak berberak izaten jarraitzen baitute. Hala ere, 1980. hamarkadan geldieztina bilakatuko zen prozesu batean sartu zen espainiar arkeologia. Generoen arteko erlazioen ikerketak indarra hartzen joan ziren, horretarako batez ere material arkeologikoak eta hein txikiago batean dokumentu historikoak erabiliz.

Bai European eta baita Espainia mailan ere, gai honen inguruko ikerlan gehienak unibertsitateari lotuak egon dira, emakume horiek akademian sartzeko aukera izan zutelako, eta ikasle berri horiek ikerlan ildo hori jarraitzen hasi zirelako. Baina denbora aurrera joan ahala, espazio hori zabaltzen joango da, akademiatik at dauden alorretara iritsiz.

Emakumea eta arkeologiari buruzko lehenengo batzarra Santiago de Compostelako unibertsitatean egin zen 1992an, “*Reunión de Arqueología Teórica*” deituriko bileran.

Bertan, alde batetik, emakumearen arkeologia zehatz bat sortzeari buruz hitz egin zen, zeinetan emakumeak historian izan duen parte hartzea aztertu eta hau egiteko metodologia berri baten sorreraren beharrari buruz hitz egin zen. Bestetik, emakume arkeologoen lan-egoera zein zen ere aztertu zen. Hainbat autoreek azpimarratzen dute bertako emakumeek lanbide honetan bizitako sexismoa izan zela gai honi buruzko ikerketak bultzatzeko oinarritzko arrazoia (Montón Subías eta Lozano Rubio, 2012). 1994. urtean, Margarita Díaz-Andreu eta Nuria Sanz-ikertzaileek, emakumeek arkeologiaren lan munduan izan zuen sarrera aztertu zuten lehen aldiz. Oso esanguratsua iruditzen zaigu kasu honetan artikulua Estatu Batuetako aldizkari batean argitaratu izana, horrek erakusten baitu espainiar akademian oraindik ere horrelako gaiak aztertzea zaila izaten jarraitzen zuela. Hala ere, 2000. hamarkadarako, generoaren arkeologia bere lekua topatzen hasi zen, bat-batean gaiari buruzko ikerketa, kurtso eta liburu ugari egiten hasi zirelako (Díaz-Andreu, 2014).

Orokorrean, akademian sartzeko aukera izan zuten emakume horiek beraien ikerkuntza taldean ezarriak zeuden gaiak aztertu zituzten, baina pixkanaka, genero eta emakumeari buruzko ikerketak egiten hasi ziren. 2000. urtean adibidez, Paloma Gonzalezek emakumeen eta arkeologiaren arteko erlazioa aztertu zuen. Bertan, generoaren arkeologiaren eta arkeologia feministaren arteko banaketa aztertzen du, emakumea aztertzeke behar diren metodologia ezberdinak azaltzen ditu, horrekin lortu dezakegun informazioaz eta batez ere, horrelako lanak aurrera eramateko beharraren zergatiak ere hitz egiten du. 2005. urtean berriz, Margarita Sanchez Romerok “Arqueología y género” deituriko monografiko bat idatzi zuen. Monografiko honetan, arkeologia eta generoari buruzko ikuspegi berri bat emateaz gain, Espainiako arkeologo ezberdinen ikerlanen ondorioak agertzen dira, emakumearen historiari buruzko informazioa ematen dutenak arkeologiaren bitartez: generoaren arkeologia historiaurrean, eguneroko bizitzan, elikadurari buruzko ikerketan, zeramikan, industria litikoaren aztertzean, etxeen arkitekturraren azterketan, ikonografian, egungo museoetan... Ordutik aurrera eta batez ere 2010. hamarkadan, gai hau aztertzen duten artikulugari publikatu dira, batez ere ikuspegi historiografiko batetik. Euskal Herriaren kasuan adibidez, 2014. urtean eta 2015. urtean Euskal Herriko Unibertsitatean egindako bi Gradu Amaierako Lan topatzen ditugu, lehengoak azterketa historiografiko bat egiteaz gain, museo baten azterketaz eta arkeologoei egindako elkarrizketez osatua zegoelarik (Areizaga Llorente, 2018), besteak beste, eta bigarrena, lan bibliografiko eta historiografiko bat delarik (Pozo Sevilla, 2014-2015). 2018. urtean berriz, Arkeogazte aldizkariak “Arkeologia, generoa, sexua eta sexualitatea” izeneko monografikoa argitaratu zuen, non Espainiako kasuak aztertzeaz gain, Euskal Herriko indusketa eta esperientzietan ere zentratzen den.

Argitalpenaz gain, unibertsitateko graduek, gradu-ondokoek eta masterrek ere generoaren inguruko ikasgaiak ematen hasi ziren. Granadako Unibertsitatea 2003. urtean arkeologia eta generoari buruzko kurtso bat (Sánchez Romero eta Contreras Cortes,

2003) eskaintzen hasi zen ikasleei ikerketa ildo berri bati gerturatzeko, lehen aldiz Espainian (hurrengo urteetan egiten jarraituko zena). Horrelako aurrerapenei esker, ikuspegi feministek garrantzi handia lortu dute gaur egun oso debate interesgarri eta aberatsa bilakatu. Hortik aurrera, pixkanaka baina batez ere 2010. urtetik aurrera berriz ere, hainbat unibertsitateek gai honekin zerikusia duten hautazko ikasgaiak eskaintzen joan dira. Horien artean, Alcalako Unibertsitatea¹, Madrileko Unibertsitate Konplutensea², Jaeneko Unibertsitatea³, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa⁴... aurkitzen ditugu. Bestalde, online ikastaroak ere sortzen joan izan dira Interneten garrantzia handitzen joan den heinean, horren adibide Murtziako Unibertsitatea dugu⁵, besteak beste.

2010eko hamarkadatik aurrera ere, hitzaldi zikloak edota kurtsuak ere sortzen hasi ziren. Hori dela eta, Madrilgo Unibertsitate Autonomoak arkeologia eta generoari buruzko lehenengo jornada antolatu zuen urte horretan. Honetaz gain, 2015. urtean adibidez, Antequeran (Andaluzia) bi eguneko kurtsu bat egin zen “Conjunto Arqueológico Dólmenes de Antera” taldeak antolaturikoa. Bertan, hainbat ikerketa taldeek parte hartzeaz gain, Malagako Diputazioak eta Diputazioaren Arte museoak ere parte hartu zuten⁶.

-
- 1 “Arqueología y género: Investigando y construyendo la igualdad” izeneko 6 kredituko hautazko ikasgaia transbertsala. Alcala-ko unbiertsitateak eskainia. Kontsultatzeko: <https://www.uah.es/es/estudios/estudios-oficiales/grados/asignatura/Arqueologia-y-Genero-Investigando-y-Construyendo-la-Igualdad-100169/>
 - 2 “Arqueología de género” izeneko hautazko irakasgaia. Madrilgo unibertsitate konplutenseak eskaintzen duen Arkeologia Graduan aurkitu daitekeena. Kontsultatzeko: <https://geografiaehistoria.ucm.es/data/cont/media/www/pag-70396/4.Arqueolog%C3%ADa%20del%20G%C3%A9nero.pdf>
 - 3 “Arqueología de género en la cultura íbera” izeneko hautazko irakasgaia. Jaengo unibertsitateak eskaintzen duen Arkeologia Graduan aurkitu daitekeena. Kontsultatzeko: https://uvirtual.ujaen.es/pub/es/informacionacademica/catalogoguiasdocentes/p/2019-20/1/128A/12813001/es/2019-20-12813001_es.html
 - 4 “Arqueología y género” izeneko hautazko ikasgaia. Madrilgo Unibertsitate Autonomoak eskaintako “Arqueología y Patrimonio” masterrean aurkitu daitekeena. Kontsultatzeko: [https://secretaria-virtual.uam.es/doa/consultaPublica/look\[conpub\]BuscarPubGuiaDocAs?entradaPublica=true&idiomaPais=es.ES&_anoAcademico=2019&_centro=101&_planEstudio=348](https://secretaria-virtual.uam.es/doa/consultaPublica/look[conpub]BuscarPubGuiaDocAs?entradaPublica=true&idiomaPais=es.ES&_anoAcademico=2019&_centro=101&_planEstudio=348)
 - 5 Murtziako unibertsitateko CEPOAT taldeak antolatutako online ikastaroa. “Arqueología, mujeres y género” izeneko. Kontsultatzeko: https://www.um.es/cepoat/aulavirtual/?page_id=9141
 - 6 Malagako “Museo del Arte de la Diputación” museoak antolatutako kurtsua. “Mujeres, géneros y arqueología izeneko. Kontsultatzeko: <https://www.webgea.es/actividades/cursos/21-mujeres-generos-y-arqueologia>

Nafarroaren kasuan, 2018.urtean Nafarroako museoak arkeologiari buruzko hitzaldien ziklo bat antolatu zuen⁷. Bertan, generoari buruzko arkeologiari ere eman zioten bere lekua Espainia mailan gai hau ikertzen duten bi ikerlari famatuenetarikoa ekartzen honi buruzko paradigma berriak aztertzeko: alde batetik, Margarita Sánchez Romero Granadako Unibertsitateko irakaslea dena eta bestetik, Maria Cruz Berrocal, Kantabriako Unibertsitateko irakaslea. Honetaz gain, 2019. urtean *Herstóricas* izeneko taldeak, “¿Dónde están las mujeres? Historia, Mujeres y Género” izeneko programan, Granadako Arkeologia museora bisita antolatu zuen arkeologia eta generoaren arteko erlazioa azaldu eta publiko ez akademikoari erakusteko⁸.

Argi ikusi dugu, arkeologia mota hau akademian bere lekua lortzen joan dela 1980. hamarkadatik gaur egun arte. Baina horretaz gain, akademiatik at dauden pertsonengana gerturatu den zerbait ere bilakatu da. 2016. urtean, Emakumearen egunarekin erlazionatutako ekintza gisa, Bizkaiko Arkeologia Museoak antolatutako “Arkeologia eta generoa: museo eta betaurreko lilekin” proiektua eraman zuen aurrera⁹. 2017. urterako berriz, egun horri lotua ere, Wikipedia plataforma digitalean emakume arkeologoei buruzko artikuluak sortzeko dinamika sortu zuen Museo Arkeologiko Nazionalako Liburutegiak¹⁰. Arabako Foru Aldundiak bestalde, Batxilergoko ikasleei zuzenduriko “Arkeologia eta generoa: ikustaldi interaktiboa” ekintza antolatu zuen 2018.urtean.

2019. urtean gai honekiko ekintzak ugariagoak izan dira. Ekainean, Ondare kulturalari eta emakumeei buruzko bigarren jardunaldia egin zen, Madrilgo Komunitateko Kultura, Turismo eta Kirolen sailak antolatua¹¹. Irailean, Santiago de Compostelan “Generoa, Arkeologia eta Ondareari” buruzko kongresua antolatu zuen ArqFem taldeak, zeinetan Galiziako ondarean emakumeak daukan garrantziari buruz hitz egin nahi izan

7 Nafarroako museoak antolatutako arkeologia hitzaldi zikloetan, “Genero arkeologia” izeneko zikloa. Kontsultatzeko: https://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sala+de+prensa/Noticias/2018/09/06/ciclo+arqueologia+de+genero.htm

8 *Herstóricas* taldeak antolatutako “¿Dónde están las mujeres? Historia, Mujeres y Género” bisitari buruzko informazioa. Kontsultatzeko: <https://laventanaclubcultural.com/event/visita-herstoricas-arqueologia-y-genero/>

9 Bizkaiko aldundiak antolatutako jardunaldia Bilboko Arkeologia museoan. Kontsultatzeko: https://bizkaikoa.bizkaia.eus/fitxategiak/irudiak/4_3_116__11_33_20_Martxoak%208%202016.pdf?hash=ea85a3f587117569384f1e46001387ee

10 2017ko Editatona proiektuari buruzko informazioa. Kontsultatzeko: <http://www.man.es/man/dam/jcr:6f14b695-ad22-4b9f-aad8-3b3fd197ccb5/editatona-mujeres-cartel.jpg>

11 Jardunaldiei buruzko informazio praktikoa. Kontsultatzeko: <https://www.comunidad.madrid/actividades/2019/jornadas-tejiendo-pasado-patrimonios-invisibles-mujeres-portadoras-memorias>

zen¹². Abenduan “*Jornadas Pastwomen: Ciencia en femenino desde la Arqueología: De la investigación a la coeducación*” deituriko kongresua antolatu zen Valentziako Unibertsitatean¹³. Hau, emakumearen historia aztertzen duen ikerketa talde batek antolatua izan zen, historiaurretik protohistoriara.

Modu honetan, argi eta garbi ikusi daiteke generoaren arkeologiak bere lekua topatu duela akademian, orokorrean. Baina arkeologoen komunitatea osatzen duten horien artean sarrera hain erraza izan ez dela erakutsi duten ikerketak ere atera dira. Europako Arkeologia Asoziazioak (EAA) antolaturiko kongresuan, zein Bartzelonako Unibertsitatean egin zen 2018. urtean, emakume arkeologoen %90ak indusketetan abusuak bizi izan dituela ikusi zuten. Hau ez da berria. 2014. urtean Euskal Herriko Unibertsitatean egindako Gradu Amaierako Lan baten ikerketak, zeina 2018an argitaratua izan baitzen Arkeogazte Aldizkarian (Areizaga-Llorente, 2018), argi erakutsi zuen elkarrizketaturiko emakume guztiek sexuagatikoz jazarpen egoerak ikusi edota bizi izan zituztela indusketetan.

2. EUSKAL HERRIKO EMAKUME ARKEOLOGOAK JOMUGAN.

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, eta XX. mendera arte, androzentrismoa izan da nagusi arkeologiaren baitan. Hori dela eta, erreferentziazko arkeologoen gizonezko izena zuten. Euskal Herriko arkeologia ez da salbuespen, eta aitzindariez hitz egiterakoan berezko izenak datozkigu burura: Telesforo Aranzadi, Enrique Eguren eta Jose Miguel Barandiaran. Ondorengo arkeologo belaunaldia osatu zutenen artean berriz, Jesus Altuna, Ignacio Barandiarán edota Armando Llanos... Soberan ezagunak dira euren ekarpenak eta Euskal Herriko Historiaren ezagutzarako garrantzizko suertatu direla ukaezina da. Hori dela eta, hainbat dira euren ibilbide profesionalaren inguruan argitaratutako lanak edo omenaldiak. Emakumezko arkeologoei dagokionean baina, erreferenteak (historiografikoak, esaterako) ez dira hain ugariak. Omenaldi gisa eginiko argitalpen batzuk dauden arren, M^a Angeles Mezquírizi (Gobierno de Navarra, 2004) edota Lydia Zapatarri (Fernández-Eraso *et al*, 2017) eginikoak kasu, zaila suertatzen da emakume arkeologoen inguruko informazioa aurkitzea. Auñamendi Entziklopedian, adibidez, arkeologoei eta arkeologiari eskainitako atal bat topa dezakegu. Emaitzek, ordea, argi uzten dute emakumezkoen errepresentazioa urria dela, bost baitira soilik emakumezko arkeologoen ingurukoak.

12 Genero, arkeologia eta ondareari buruzko jaurdunaldiaren informazioa. Kontsultatzeko: <https://www.edu.xunta.gal/portal/es/node/28802>

13 Pastwomen jaurdunaldiei buruzko informazioa. Kontsultatzeko: <http://www.pastwomen.net/novedades/ciencia-en-femenino-desde-la-arqueologia-de-la-investigacion-a-la-coeducacion>

Gauzak horrela, eta laburki bada ere, datozen lerroetan Euskal Herriko arkeologian ihardun duten zenbait emakumezko arkeologoren ibilbide profesionalari gainbegiratu bat emango diogu euren lana ikustarazteko asmoz¹⁴. Lan honetarako beraz, ezinbesteko izan da memoria arkeologikoen bilaketa eta bilketa bibliografikoa burutzea. Azken horri lotua, biltegi digitalen kontsulta (Errioxako Unibertsitateko Dialnet, kasu) lagungarri suertatu zaigu. Azpimarratu behar dugu, prentsa oharretara nahiz interneteko zenbait atarira (Aunamendi Entziklopedia, esaterako) ere jo behar izan dugula euren inguruko informazioa topatzeko -urria izan bada ere-. Horien guztien bidez, eta orain arte eskuratu ahal izan dugun informazioa hizpide, emakumezko arkeologoen presentzia 80-90. hamarkadatik aurrera egonkortu zela baieztatu liteke. Kontuan izanik egon badaudela euren ibilbide profesionalari aurretiaz (50-70. hamarkaden artean) ekin ziotenak, belaunaldi bi bereizi ditugu. Zehaztu nahi dugu ezinezko suertatzen dela emakumezko arkeologo guztiak zerrendatzea eta are gutxiago euren lanak osotasunez erreparatzea honako artikuluan. Geure helburua, ahalik eta aniztasun gehiena irudikatzea denez, perfil desberdinak hautatzen saiatu gara: kronologia eta ikerlerro ezberdinak, unibertsitateko irakasle izandakoak, administrazio publikoetan karguak izandakoak, Arkeologia taldeetako kideak ...

2.1. Lehen arkeologo belaunaldia.

Honako arkeologoen XX. mendean zehar garatu zituzten nagusiki euren ikasketa zein ikerketak; hortaz, lehen emakumezko arkeologoen belaunaldia izatearekin batera, egungo emakume arkeologoen aitzindaritzat har ditzakegu. Landa-lana eta argitalpen ugari burutzeaz gain, arkeologia bultzatzeko zein jendarteratzeko ekimenetan zein erakundeetan partaidetza aktiboa izan zutela azpimarratzekoa da.

M^a Ángeles Mezquíriz Irujo de Catalán. Ibilbide profesional handiko arkeologo nafarra, (Aunamendi Entziklopedia, 2020; Zubiaur Carrreño, 2001) Euskal Herriko arkeologian aitzindari nagusitzat har litekeena. Zaragozako Unibertsitatean Filosofian eta Letretan lizentziatu (1951) eta doktoratukoak (1957), Numismatikako katedra laguntzaile (1952) izan zen unibertsitate berean eta zeramika ikasketetan zentratu zen (Mezquíriz Irujo de Catalán, 1961). Era berean, eta 50. hamarkadan, Italian industen egon izan zen. Euskal Herriari dagokionez, Nafarroan garatu du batik bat bere lanbidea. Horra hor, Arellanoko villan edota Andelosen burututako kanpaina luzeak (Gobierno de Navarra, 2004). Era berean, landa-lana beste hainbat eginkizunekin tartekatu du Mezquíriz de Irujo Catalanek: Institución Príncipe de Vianako indusketa batzordeko lehendakari; Trabajo de Etnología y Etnografía de Navarra eta Trabajo de Arqueología Navarra al-

14 Artikulua egiten ari ginela, eta M8 egunaren harira, *Instituto Alavés de Arqueologiak* bere sare sozialetan Arabako emakume arkeologoen inguruko testu bat argitaratu zuen.

dizkarietako presidente, etab. Museologia esparruan eginiko lana ere azpimarragarria da, eta honi lotutako lanen artean, Nafarroako museoko kontserbatzaile eta zuzendari izan zen. Arkeologia irakasle lanetan ere ihardun izan zen Nafarroako Unibertsitatean. Ibilbide profesional honetan, nola ez, argitalpen ugari publikatu ditu (Dialnet Plus, 2020; Gobierno de Navarra, 2004).

Francisca Sáenz de Urturi Rodríguez, (Dialnet Plus, 2020b). Arabar arkeologoa, Nafarroako Unibertsitatean lizentziatu zen Filosofia eta Letretan (1975), bere memoria *Cerámica en torno a la Segunda Edad del Hierro en Álava* (Martínez Artola, 2020) izanik. 1975az geroztik, eta gaur egun nagusiki gestiozko arkeologiari (Gasteizko Alde Zaharrean, adibidez) lotutako lanetan dabilen arren (Sáenz de Urturi Rodríguez, 2017; Ugarte Lz. de Arkaute, 2018) bere ikerle jarduera Araban zehar sakabanatutako kronologia desberdinetako aztarnategian oinarritu da (Sáenz de Urturi Rodríguez, 2003, 1994). Horra hor, Arkaian, Mariturrin edota Los Castros de Lastran (23 urtez) zuzenduriko indusketak (Sáenz de Urturi Rodríguez, 1997). *Instituto Alavés de Arqueología*ko lankide eta kide ere badugu.

Koro Mariezkurrena Gastearena. Kronologia eta testuinguru historiko desberdinetako aztarnategietan lan egin badu ere (Mariezkurrena eta Altuna, 2001), esan liteke Mariezkurrenak Historiaurrean oinarritu duela bere ikerlana (Dialnet Plus, 2020c). Zehatzagoak izanik, arkeozoologiaren ildotik (Mariezkurrena eta Altuna, 1983). Horren harira, bera dugu, Alturarekin batera, Aranzadi Elkarteko Arkeozoologia bildumaren sortzaile (Altuna eta Altuna, 2005). Landa-lanari dagokionez, Altxerrin edota Arenazako kobazuloetan azterketak burutu baditu ere, Ekaingo kobazuloan eginiko lana izango litzake adierazgarrienetarikoa (Mariezkurrena, 2005-2006). Euskal Herriko ondarearen dibulgazioari ere eskaini dio tarte bat bere ibilbidean. Esaterako, Aranzadiko aldizkariko idazkari lanak betez, 2009. urtetik aurrera GOAZ Zentruko zuzendari izanez edota Ekaingo kobazuloaren erreplikari bultzatuz.

M^a Nieves Urrutia Agorreta. Hezkuntzan alorrean zentratu bada ere (Eusko Ikaskuntza, 2006), Euskal Herriko arkeologian garrantzizko papera izan zuen. 60. hamarkadatik aurrera, aztarnategien prospekzioan eta aurkikuntzan modu aktiboan aritzeaz ez ezik (Llanos, 2003), indusketa lanetan ibili zen: Urisolo, Socuevas... Arkeologiarekin izan zuen erlazioa baina, ez da bertan bukatzen, Arkeologiarako Arabar Institutuaren sortzaileetako bat ere baitugu. Azken hau funtsezko izan delarik Arabako arkeologiarako zein, eskualdeko historiaren ezagutzarako. Alde batetik, Historiaurreko zein Erdi Aroko aztarnategien indusketak sustatuz, eta bestetik, lan horien dibulgazioa bermatuz. Horri lotua, eta aztarnategietara bisitak, kurtsuak, hitzaldiak... antolatzeaz gain, "*Estudios de Arqueología Alavesa*" aldizkariaren argitalpena bultzatu dute erakundearen bitartez.

Mercedes Unzu Urmeneta. Arkeologo eta Nafarroako Unibertsitatean graduatutako iruindarra dugu Unzu. Unibertsitate bereko Arkeologia sailean abiaraziz bere ikerle ibilbidea (Dialnet Plus, 2020d), honako gaietan zentratu zen bereziki: protohistoria, erromanizazioa eta zeramika. 1972az geroztik Nafarroako Museoarekin arituko da elkarlanean eta Nafarroan zehar burutu diren indusketa ezberdinetan parte hartu du (Unzu Urmeneta *et al.*, 2017; Unzu Urmeneta eta Pérex Agorreta, 1988). Horra hor, Bardeetako meatzaritza erromatarren inguruan eginiko ikerketak. Gabinete Trama enpresa arkeologikoko zuzendari eta sortzaile gisa, eta beste hainbat proiekturen artean, Iruñeako Alde Zaharreko zein Gaztelu Plazako eraberritze obren jarraipena eraman ditu aurrera (Unzu Urmeneta, 1993-1994).

2.2. Bigarren arkeologo belaunaldia.

Belaunaldi berri hau osatzen duten emakumezkoek XX. mendearen azken hamarkadetan eta XXI. mendearen hasieran burutuko dituzte euren ikasketak eta ikerketak. Ikerlerro berriak txertatzearekin batera, emakumezkoak ikustarazten dituzten lanak bultzatzen ere hasiko dira.

Rosa María Armendáriz Aznar. Historialari eta arkeologo nafarrak, Salamancako Unibertsitatean burutu zituen Geografia eta Historiako ikasketak (Auñamendi Entziklopedia, 2020b). Espezializazio gisa, Historiaurrea eta Arkeologia hautatu zituelarik. *Olaricum Estudios Arqueológicos*, S.L. enpresaren sortzailea izateaz gain, Nafarroako Museoarekin aritu da elkarlanean. Erromatar garaiko Arellanoko Villa de las Musas, Andeloseko erromatar hiria edota Iruñeako Katedraleko indusketa lanetan partaidetza izan du, besteak beste (Dialnet Plus, 2020e). Azpimarratzekoa baina, bere garrantziagatik, Eslavako Santa Cruz aztarnategi erromatarrean burututako eta zuzendutako indusketa lanak (Armendáriz Aznar *et al.*, 2016, 1997, 1995-96).

Belén Bengoetxea Rementaria. Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saileko irakasle, Historiako doktore eta arkeologoa dugu Bengoetxea. Deustuko Unibertsitatean Historian Lizentziatua eta Arkeologiako Eskola Praktikoan Diplomaturatutakoak (1989), Euskal Herriko Unibertsitateko *Máster en Patrimonio Histórico y Artístico*a gauzatu zuen. Bere ikerlerroak (Dialnet Plus, 2020f) Aro Berriko Arkeologian zein, Hiri-Arkeologian oinarritu ditu, eta hiri desberdinetan eginiko indusketetan parte hartu badu ere (Salinillas de Buradón edo Alegría-Dulantzi), azpimarratzekoa da Durangon eginiko lana; bertan, indusketak antolatu eta zuzendu dituelarik. Azpimarratu beharra dago, arkeologiaren dibulgazioan ere diharduela (Bengoetxea, 2017a) eta genero berdintasuna sustatzeko ahaleginak ere bermatu dituela bere lanen bidez (Bengoetxea, 2017b).

Lourdes Herrasti Erlogorri. Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia eta Historiako lizentziatua (1981) eta osteoarkeologian espezializatutakoak, bigarren zikloko irakaskuntzarekin tartekatu ditu bere arkeologo lanak (Dialnet Plus, 2020g). Kronologia ezberdinetako hileta testuinguruetan lan egindakoak (Herrasti *et al.*, 2012), Gerra Zibileko eta diktadura frankistetako eraildakoen fosen desobiratzean eta identifikazioan partaidetza eta zuzendaritza aktiboa du. Horra hor, Ezkaban eginiko lanak. Aranzadi Elkarteko kide izatearekin batera (Antropologiako sailean), dibulgazioari zuzenduriko beste hainbat ekintzetan parte hartu izan du Herrastik: Sabino Arana Fundazioko Memoria Historikoko Seminarioan edota UNED-eko kurtsoetan, esaterako.

Mertxe Urteaga Artigas (Añamendi Entziklopedia, 2020c). Valladolideko Unibertsitatean lizentziatutako eta doktoratutako arkeologoa dugu Urteaga, zeinak bere ikerketak Gipuzkoako Aro Iluna deritzanean zentratu baitituen (Dialnet Plus, 2020h; Urteaga eta Otero, 2002; Urteaga *et al.*, 1998). Oiasoko Erromatar Museoko zuzendari izateaz gain (Urteaga, 2017), CFJAUko eta Bidasoako Zinema Arkeologikoaren Festival Internazionalaren zuzendaritzan ere aritu da; baita ARKEOLAN Fundazioan. 2016. urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren ondare eta arkeologia teknikari ere izandakoa dugu. Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean irakaskuntza lanetan aritzeaz gain, erakunde bereko “Máster de Patrimonio Artístico y Arqueológico”-ko koordinatzaile izan zen. Bere lana dela eta, 2014. urtean *Vaccea Saria* jaso zuen.

Sonia San José Santamarta. Euskal Herriko Unibertsitateko Historiako lizentziatura eskuratu zuen, Historiaurrean espezializatuz. Bere ikertze-jarduerak Gipuzkoako Burdin Aroan zentratu dira (Dialnet Plus, 2020i; San José Santamarta, 2010) eta horrekin erlazionaturik, bere doktoretza tesia arkeometalurgiaren (San José Santamarta *et al.*, 2010) esparrura bideratu du. Gauzak horrela, Aranzadiko ikertzailea dena 90. hamarkadaz geroztik, Munoaundiko herri gotortuko edota Boluntxoko indusketak zuzendu ditu, besteak beste. Era berean, gestiozko arkeologia lanetan aritu izan da (San José Santamarta, 1998). Bere ikerlanek hainbat argitalpenetan izan dute isla.

Lydia Zapata Peña. Deustuko Unibertsitatean Geografia eta Historian lizentziaturiko arkeologo eta doktorea dugu (Euskomedia Entziklopedia, 2020d). Londreseko Unibertsitateko Arkeologia Institutuko “Human Environment” delako sailean, arkeobotanikan espezializatu zen. Bere ikerlerroa Euskal Herriko nekazaritzaren sorreran oinarritu zen bereziki, eta bertoko aztarnategien gaineko ikerketak burutu zituen: Balzola, Pico Ramos... (Dialnet Plus, 2020j). Horiek Euskal Herriko Unibertsitatearen baitan burutu zituen eta era berean, irakaskuntza lanekin tartekatu zituen. Bestetik ere, Afrika PALEOPLANT delako ikerketa proiektuan partaidetza izan zuen eta Europako Ikerketa Batzordearen (ERC) *Consolidator Grant* delakoa eskuratu zuen. Bere ikerle arlotik at, emakumeak ikustarazteko ekintzetan parte hartu zuen. Erlazio zuzena izan zuen Kantabriako Unibertsitatean ospaturiko “Las Mujeres en la Prehistoria” erakusketaren

antolakuntzan (Valentziako Museoak utzitakoa) eta parte hartu izan zuen Unibertsitate berean ospaturiko “Mujeres en la Prehistoria y el Mundo Antiguo: nuevas miradas al paso de la humanidad” konferentzian.

Eginiko aukeraketak, hainbat arkeologo kanpo utzi dituen arren -Jaione Agirre, Amalia Baldeón, M^a Amor Beguiristain Gúrpide, Ana Cava, M^a José Iriarte Chiapusso, besteak beste-, agerian uzten du ikerlerro anitzak lantzeaz gain, produkzio zientifiko aberasgarria ekoitzi dutela emakumezko arkeologoek. Honakoa, funtsezkoa izan delarik Euskal Herriko historia ezagutzera begira. Era berean, arkeologiaren dibulgazioa modu aktiboan burutu dutela ikustarazten delarik.

3. EMAKUMEZKO ARKEOLOGOEI GALDEKETA

Teoria eta historiografiaren ostean, aproposa iruditzen zitzaien egungo arkeologian ihardun duten emakumeen ahotsak entzutea, beraien lan egoera eta esperientzia pertsonala ezagutu ahal izateko. Horretarako, galdetegi labur bat prestatu genuen. Modu honetan, ezingo dugu emakume arkeologo guztien egoera aztertu, baina *microhistoria* izeneko metodologia erabiliz, esperientzia zehatzetatik ondorio orokorrak lortzen saiatu gara. Hori dela eta, informazioa lortu ahal izateko *atzera begirako azterketa* deituriko metodologia erabili dugu, zeinetan galdetegi erantzun dutenen esperientzian oinarritutako galderak egiten baitiren. Hots, iraganean bizitako gauzei buruz galdetzen diegu, eta bakoitzak bere bizipenak antolaturik eta azterturik dituenen erantzuten du. Honela, bi informazio mota lortzen dira: modu zehatzean eta ez-zehatzean gogoratzen diren informazioak.

Gauzak horrela, zenbait gairen inguruan galdetu nahi izan genien¹⁵: arkeologian aritzera zerk bultzatu zituen, ikerketa taldeen/lanen hierarkizazioaz, emakumeen presentziaz arkeologian, parekidetasunaz, etab. Erantzun sorta handia izateko helburuaz, esparru eta ikerlerro desberdinetako arkeologoei (enpresa pribatuei, unibertsitatei eta langile autonomoei) bidali genien galdetegi; haatik, guztira 9 erantzun jaso ditugu. Kontuan izanik Euskal Herria eremu txikia dela, eta are gehiago Arkeologiaren esparrua, partaideen datuak isilpean mantentzea oinarrizkoa zen geuretzat, eta parte-hartzaileei ere hasiera batetik azpimarratu zitzaiezen galdetegi guztiz pribatua izango zela eta beraien datuak babestea izango zela helburu nagusia. Horregatik harritzen gaitu hain parte-hartze baxua eduki izana.

Metodologian azaldu bezala, aterako diren ondorioak jasotako erantzunen araberakoak izango dira, egon liteke hortaz, artikulua zeihartasun jakin bat duela pentsa dezakeenik. Argi utzi nahi dugu baina, praktika arkeologikoa orokorrean irudikatzen ez

15 Galdetegiak 14 galdera zituen, non erantzuleek nahi adina azalpen eman baitzezaket.

duen arren edota emakumezko arkeologo guztiek ez duten zertan halako egoerarik bizi izan, erantzuleek azaltzen dizkiguten esperientziak arkeologiaren errealitate bat ere badirela, arkeologia ez baitago gizartetik eta bere dinamiketarik at.

Gure erantzuleak hiru adin talde ezberdinetan kokatzen dira: horien %77a 26-35 urte bitartekoan taldean kokatzen da, %11,11a 36-45 urte arteko taldean, eta azkenik, %11,11a, 46-65+ bitarteko taldean.

Emakumearen papera arkeologian nahiko berria dela ikusi dugu lehenengo atalean, horregatik, honetan sartzeko arrazoi oso ezberdinak aurkitu ditugu geure parte hartzaileei dagokionez. Askok umeak zirela konturatu ziren arkeologiarekiko interes handia zutela, ondare arkeologikoa ezagutu edota aztarnategi famatuak bisitatu ondoren, besteak beste. Gainera, txikitatik elementuak aztertzen zituzten pertsonak ere baditugu, zeintzuk objektu ezberdinen bilduma egin eta lupa bidez aztertzen baitzituzten. Beste batzuentzat berriz, kultura materialaren azterketaren bitartez iragana berreraikitzeak aukera izan zen mundu honetara sartzera bultzatu zituenak. Baina guzti honetaz gain, bokazioa eta bidaiatzeko ematen duen aukera ere topatzen ditugu, azken finean, indusketatik indusketara ibiltzeak leku berri ugari ezagutzeko aukera ematen baitu.

Beraien ikerketa arloari dagokionez, erantzun kopurua urria izanik, eta erantzuleen datuen isilpekotasuna mantendu ahal izateko, ezin izango dugu datu zehatz askorik eman horien inguruan. Haatik, zenbait datu orokor eskaini daitezke: emakumeok kronologia eta ikergai anitzak lantzen dituztela eta zenbait kasutan arkeologiaz (zentzu klasikoan) haratago doazen diziplinetako ezagutzak bereganatu dituztela, horiek gerora arkeologian aplikatuz. Lan sektoreari dagokionez berriz, gehiengoa arkeologia publikoan ibilitakoa dugu (zazpi) eta gainontzekoak, publikoan zein pribatuan.

Emakumearen sarrera lan esparruan ez dela erraza izan ikusi dugu atal teorikoan, eta galdetegi honetan lorturiko erantzunek hori bermatzen dute. Galdetegia erantzun duen %33ak parekidetasuna bermatzen dela uste duen arren, gainontzeko %67ak indusketetan parekidetasuna guztiz ez dela bermatzen uste du. Honen arrazoia, indusketen edota enpresen buru bezala gizonak egon izan direlako uste dute, beraz, nahiz eta langile emakume eta gizonen kopurua antzekoa izan, ez da parekidetasuna modu kontzientean bilatu eta sustatu nahi izan dutelako. Gazteen artean berriz, gehiago sustatzen denaren ustea dute, baina emaitzak ez direla oraindik guztiz ikusten. Hala ere, parekidetasuna ematearen edo ez ematearen arrazoa lekua, instituzioa edota arloaren araberakoa izango dela argi dago. Beraz, horren eboluzioa ere ezberdina izango da. Horregatik, gehiengoak dio azken urteotan ez duela aldaketarik sumatu. Aurkakoa, azken hamarkadetan eman izan den aurrerapausoa blokeatua geratu dela uste da.

Parekidetasunaren harira, eurak parte hartu izandako indusketetan emakumezko arkeologoen zer-nolako eginkizunak bete ohi izan dituzten jakin nahi izan dugu. Eran-

tzunak, bi multzo nagusitan bildu daitezke. Alde batetik, lan fisikoari dagokiona eta bestetik, erantzukizun mailari. Lan fisikoaren kasuan gehientsuenek adierazten dute antzeman izan dutela esfortzu handiko lanak direnean, zuzendariak nahiago izaten dituztela (lurra mugitzerakoan, adibidez) gizonezkoak eta emakumezkoak berriz, fisikoki arinagoak direnetan (materialen inbentarioa, kasu). Erantzukizunaren inguruan berriz, orotariko lanak bete dituzten emakumeak aurkitu dituztela plazaratzen dute gure erantzuleek: zuzendari, tekniko, landa laneko langile edota laguntzaile moduan. Hori hala izan arren, orokorrean gizonezkoek zuzendaritza postuak betetzen dituztela ere adierazten dute. Horren adierazgarri izan liteke soilik erantzuleetako bakar batek nagusiki emakumezko zuzendariak eduki izana.

Landa-lanetik at antzeko patrioiak antzeman daitezkeen helburuaz, ikerkuntza taldeen edota lan taldeen hierarkizazioa nolakoa den galdetu diegu, eta erantzuna orokorrean berbera izan da: landa lanetan bezala, gizonezkoek izaten dituztela zuzendaritza postuak. Langilean, ikerleean eta bekadunen artean berriz, egoera orekatuagoa dela antzematen dute zenbaitek. Egoera horren kausen inguruan galdetzerakoan, antzeko ildotik doaz erantzunak. Tradizionalki, gizonezkoek izan dute boterea gizartean, baita arkeologia esparruan ere, horrek, euren alde jokatu izan duelarik. Egun, egoera -poliki bada eraldatzen doala aldarrikatzen badute ere, XX. mendeko dinamika oraindik ere antzeman daitezkeela baieztatzen dute. Emakumezko ikerlariak, esaterako, unibertsitateko goi mailako postu egonkorretara iritsi ahal izateko askozaz ere zailtasun gehiago izan zituzten. Besteak beste, amatasuna ez zelako kontuan izaten. Erantzuleetako bat haratago doa eta zera aipatzen du, garrantziko postuak eskuratzera iritsi diren emakumezkoek askotan jarrera maskulinoak bereganatu behar izan dituztela: serioak, gogorak ... Arrazoi guzti horiek izango lirateke, besteak beste, gizonezkoek zuzendaritza postu gehienak izatea azalduko luketenak.

Erantzun horiek aitzakia perfektua eman digute hurrengo galdera aurkezteari begira: ea belaunaldien artean, eta lanari dagokionez, desberdintasunik sumatu ote duten. Honen inguruan jasotako erantzunak zertxobait anitzagoak dira aurrekoekin alderatuz gero. Erantzuleen gehiengoak (seik) baiezeko erantzuna ebatzi du, baina ikuspegi desberdina eman diote euren erantzunari. Batzuk, genero ikuspegitik planteatu dute, adieraziz, dinamika aldatuz doazela eta pixkanaka emakumezkoen presentzia nabarmenagoa dela. Beste batzuk berriz, prestakuntza eta lan egonkortasunean oinarritu dira. Euren aburuz egungo belaunaldiak teknologia eta analisi berriak aplikatzeko joera handiagoa dute, baina era berean, askozaz ere zailagoa dute lanpostu egonkor bat eskuratzeko. Ezezkoen aldean ere, desberdintasunak antzeman daitezke parte-hartzaileen artean. Bi erantzularen uste-tan, generazio berriek aurrekoen patrioiak jarraitzen dituzte (ez generoarekiko, baizik eta lan dinamikei dagokionez). Gelditzen denak berriz, belaunaldiarekiko baino, jokabideak edota lanarekiko jarrera pertsonaren arabera izango dela ebatzen du.

Edozein ogibidetan, arkeologia ere ez da salbuespena, egonkortasuna lortzea izaten da helburu nagusienetarikoa. Ondorioz, parte-hartzaileen iritzia jakitea interesgarria deritzogu, eta are gehiago, emakume izanagatik. Horrexegatik, emakumeentzat zailagoa ote den plazaratu diegu. Kasu honetan, eta arkeologian edonorentzat egonkortasuna lortzea zaila dela aipatu arren, parte-hartzaileek argi dute emakumeentzat are zailagoa dela. Egoera horren zergatiak dagokionez berriz, zenbait arrazoi plazaratzen dituzte: legeek aukera berdinak izateko eskubidea bermatzen duten arren, emakumeei oraindik ere kulturalki hainbat eginkizun eskatu edota ezaugarri ebazten zaizkiela (arrazoi nagusienetarikoa, lana eta amatasuna kontziliatzea -modu autonomoan diharduten arkeologoentzat askozaz ere zailago suertatzen zaielarik-); gizonaek erabakitzaileagoak direnaren ustea darrai duela; gizarteak berak, emakumeek konpetitiboak eta zailak diren lanbideetatik urruntzeko joera oraindik ere mantentzen dutela edota emakumezko arkeologoak askotan “-ren emazte” gisa irudikatzeak. Honek guztiak euren gain muga (*kristalezko sabaia*) jartzen du eta ondorioz, esfortzu handiagoa suposatzen die gizonaek eskuratu izan dituzten postuetara edo goi karguetara iristea.

Orain arte aurkeztu ditugun galderak izaera orokorragoa izan dute, emakumezko arkeologoak kolektibo gisa aztertzeko balio izan baitute. Horrez gain baina, emakumeon esperientzia edota bizipen konkretuak ezagutu nahi izan ditugu. Arrazoi hori dela medio, bi galdera konkretu planteatu dizkiegu: 1) emakume izanagatik mugatuak sentitu izan diren lan arkeologikoa burutzean eta 2) deseroso edota gutxietsia sentiarazi dien egoerarik bizi edo ikusi izan duten.

Espero genuen bezala, bere bizipenetan oinarritu direnez, erantzunak oso ezberdinak izan dira beraien artean. Lehen galderari dagokionez, erantzuleek ez dute uste emakume izanagatik euren gaitasunak mugatuagoak direnik lana egiterako orduan. Hatak, euren gaitasuna zalantzan jarri izan den egoerei aurre egin behar izan diete geure parte-hartzaileetako batzuk: modu paternalistan emandako aholkuak; bere ogibidean merituak azkarregi lortzen dabilela eta erritmoa moteltzeko edota indusketetan indar fisikoari loturiko komentarioak entzun behar izana emakume izanagatik. Haratago doana badugu galdetegian eta zera argudiatzen da, emakumezkoak zuzendutako indusketak direnean, dinamikak aldatu egiten direla nolabait. Indar fisikoa bera baino, lankidetzak bultzatzen delarik.

Bigarren galderari dagokionez berriz, eta aurretik esan bezala, jaso ditugun erantzunak anitzak izan dira. Erantzuleetako bakar batek esan digu ez duela inoiz deseroso edota gutxietsia sentiarazi duen egoerarik bizi izan. Gainontzekoek baina, gradu desberdinetan izan bada ere, aurre egin behar izan diote. Horietako batzuk lan arloari dagozkie, beste batzuk berriz, lan espazioaren sexualizazioarekin daude erlazionaturik. Lanarekiko dagokionez, honakoak aurkitzen ditugu: lorturiko aurrerapenak zortearen patu izango bailitzan hartu eta ez, lan gogorraren ondorio; arkeologoen nahiago ez izatea emaku-

mezkorik indusketetan edota euren iritziak gutxiestea; emakume izanagatik, arinagoak diren lanak ebatzea indusketaren baitan; interbentziozko arkeologia burutzerakoan obretako langileen komentarioak entzun behar izana; gizonezko batek, emakumezko baten ideia bereganatzea eta orduan bai, zuzendariak kontuan hartu izana -estratigrafiaren inguruan, adibidez-, besteak beste. Lan esparruaren sexualizazioari dagokionez berriz: euren gorputzen inguruan jaso izandako komentarioez, lekuz kanpo zeuden begiradak jaso izanaz, edota zuzendari batek egin izandako komentario sexual esplizituz -bere zakilaren tamainaz- mintzo dira.

Ildo horri jarraikiz, euren lankideek egoera horien aurrean zer-nolako jarrera izan duten galdetu nahi izan diegu eta hemen ere askotariko erantzunak ditugu. Erantzuleetako bik soilik adierazten dute modu argian jaso izan dutela babeseta eta laguntza. Gainontzekoek berriz, pertsonaren izaeraren arabera izango dela argudiatzen dute. Gauzak horrela, zenbaitek aurre egitea erabaki badute ere, eta hierarkiei aurre egitea zail suerta litekeela kontuan izanik, badira ezjakintasuna edo beste alde batera begiratzea erabaki dutenak. Erantzuleetako batek gainera, honakoa ere plazaratzen du: ez duela ezagutzen indusketarik non horrelako jarrerak zigortuak izan diren eta are gutxiago inor kaleratua izan denik horrelakoengatik.

Azkenik, gure erantzuleei zerbaitek gehitzeko aukera eman genien. Orokorrean, denek gauza bera plazaratzen dute. Arkeologia, beste ogibide asko bezala, ez dagoela bere momentu hoberenean: soldata baxuak, antolakuntza txarra, artikuluen -oihartzun handikoak bereziki- argitalpen konstanteen beharra ... Guzti honek egonkortasuna lortzea zailtzen duelarik. Egoera, hortaz, ez da erraza, baina zailagoa da emakumea denarentzat. Gauzak horrela, finantziarioa lortzea oso zaila dela adierazten dute, eta errazagoa dela hori lortzea egonkortasuna duen edota finkaturiko arkeologoa baldin bazara. Honi lotuta, hemengo arkeologiak duen sare sistemari buruz hitz egiten dute erantzuleetako batzuk. Euren aburuz, boterea, diru-laguntzak edota proiektuak gutxi batzuen eskuetan daude, horrek ikerlari belaunaldi berriak mugatzen dituelarik nolabait. Gure erantzuleek, era berean, konponbide posibleak plazaratzen dituzte. Arkeologiaren gestioa, esaterako, organo publiko batek kontrolatzea, non egonkortasuna bermatzeaz gain, soldata duina ordainduko baitzitzaien. Honetaz gain, langilea bere espediente akademikoarengatik eta kurrikularragatik baloratua izatea eskatzen da, eta ez bere generoagatik edo sexualitateagatik. Bestetik ere, ikerketak burutu osteko emaitzak argitaratzearen beharrezkotasuna aldarrikatzen dute. Horri lotuta, arkeologo guztien arteko lankidetzaren beharrezkoa dela ikusten dute, azken finean, guztion ondarea baitago jokoan.

4. ONDORIOAK

Historiagileok eta arkeologook argi izan behar dugu emakumezkoek subjektu indibidual zein kolektibo gisa ikertuak izan behar dugula eta era berean geure espazioa behar dugula ikerlari bezala. Horregatik suertatzen da funtsezkoa lehen atalean ikusi ditugun lan eta eztabaiden argitalpena zein sustapena. Beharrezkoa da Euskal Herrian ihardun zuten -eta dutenen- emakume arkeologoen lana eta izenak plazaratzea. Bestela, euren lanak isilpean edota bigarren maila batean jarraitzen dute eta zehihartasuna eratzen da. Horren helburua ez da gizonezko arkeologoen lana zalantzan jartzea edota gutxiestea, baizik eta emakumezko arkeologoei dagokien lekua ematea. Esaterako, arkeologiako klaseetan historiografiaz edota ikerkuntzaren inguruan hitz egiterakoan, emakumezko erreferenteak izatea; Euskal Herriko arkeologiaren bilakaeraz hitz egitean, emakumezkoen izenak ere agertzea... Egon liteke Euskal Herriko emakumezko arkeologoak soberan ezagunak direla pentsa dezakeenik edota badutela euren errekonozimendua. Iturrietara jo ezkerro, baina, ikusiko dugu ez dela horrela. Auñamendi Entziklopedian esaterako, arkeologoen inguruko 54 sarrera daude. Soilik 5 dira emakumezkoenak. Datuek argi uzten dute zentzu horretan ez dagoela parekidetasunik. Errepresentazioak zilegizkoa izan behar du eta horregatik dira garrantzizkoak Aranzadi Zientzi Elkarteak eginiko emakumezko arkeologoen edota Wikipediaren emakumezko arkeologoak ikustarazteko proiektuak.

Inkestan jasotako testigantzei dagokionez, eta horietan oinarrituz, oraindik ere arkeologian berdintasunarekiko lana egiteke dagoela baieztatu liteke. Ukaezina da, egun, arkeologiatik bizitzea arkeologo ororentzat zaila dela eta edozein ogibidek bezala, bere erronkak badituela. Horrek baina, ez du alboratzen, emakumezko arkeologoek, emakume izate hutsagatik, beste hainbat erronkei aurre egin behar izateak. Aurretiaz esaten genuen moduan, arkeologia ez dago gizartetik at, ondorioz, ez da harriztekoa zenbait patroi edota portaera errepikatuz izana modu kontzientean zein inkontzientean.

Belaunaldi gazteenen artean antzeko kopurua dagoen arren eta, teorikoki, sistemak berak ikerleak edota langileak artean berdintasun aukera bermatzen badu ere, hierarkian gora egiten badugu, argi ikusten da oraindik ere emakumezkoen kopurua urriagoa dela eta gizonezkoek kargu erabakigarri gehienak dituztela. Hortaz, oraindik ere gizondutako esparru baten baitan gaudenez, bereizketa bertikala ematen dela adieraz dezakegu. Jaso ditugun erantzunen harira, gainera, bereizketa horizontala ere ematen dela argudiatu dezakegu. Emakume izanagatik lan jakin batzuk ebatzea edota iritzia kontuan ez izateak, jarrera diskriminatzaileak baitira. Emakumezkoak, kulturalki zein historikoki kontrakoa ebatzi izan zaien arren, gizonezkoak bezain erabakitzaileak izan daitezke. Indar aldetik ere, egun badaude gizonezkoak baino indartsuagoak izan daitezkeen emakumezkoak. Gakoa zera da, sexuagatik bereizketa automatikoa egin beharrean, norbanakoaren ezaugarrien arabera lan edota erantzukizun banaketa egitea. Kontrakoa egin ezean, pertsona gutxiesten edota isilarazten baitugu, eta hori modu sistematikoan aplikatzen

dugunean patroï bat ezartzen dugu. Indusketetan, esaterako, gizonezkoak lurra mugitzera eta emakumezkoak berriz, materialak jasotzera. Gauzak horrela, egungo sistemak egiazko parekidetasuna bermatzen eta jarrera baztertzaileak ekidin nahi dituela baieztatu ahal izateko, datozen arkeologo belaunaldietan izan beharko du isla.

Ezinbestekoa da bestetik, egiazko berdintasuna bermatzeko, lan esparruaren sexualizazioarekin bukatzea eta egiazko kontzientziazioa sustatzea. Egoera deseroso horiek ez dute momentuan bakarrik mintzen, epe luzera ere orban bat uzten dute, inkestan ikusi ahal izan dugun moduan. Horretarako, eta txantxa edo komentario inozente gisa moztu daitezkeen arren, ezinbestekoa da horrelako jarrerak errotik moztea, eta beharrezkoa bada, neurriak hartzea. Horren harira, eta Euskal Herriari dagokionez, Arkeogazte Elkar-teak aurrerapauso garrantzitsua eman zuela deritzogu bere protokoloa aurkeztu zuenean.

Ez dugu zalantza izpirik artikuluko hau, Arkeogazteren protokoloa edota emakume arkeologoak ikustarazteko burutzen diren beste hainbat ekintza beharrezkoak ez direla pentsatuko duenik egongo dela. Geure aburuz baina, agerian geratzen da kasu erreale-tara joanez gero berdintasuna ez dela erabatekoa. Hortaz, berdintasuna erabatekoa eta egiazkoa izan arte, horretan jarraituko dugu.

5. BIBLIOGRAFIA

- Altuna, Izaskun eta Altuna, Xabier (2005). "Jesus Altunaren biografia". *Munibe, Antropologia-Arkeologia*, 57. *Jesus Altunari omenaldia*, 17-30.
- Areizaga Llorente, Idoia. (2018). "Arkeologia eta generoa: Zein da emakumearen papera egungo arkeologian?". *Arkeogazte: Arkeologia aldizkaria* 8 zbk., 163-180.
- Arméndariz Aznar, Rosa M^a; Sáez de Alberniz Arregui, M^a Pilar; Diéguez Uribeondo, Iñaki (2016). "Aproximación al paisaje urbano del yacimiento arqueológico de Santa Criz (Eslava)". *Trabajos de arqueología Navarra*, N^o 28, 245-285.
- Arméndariz Aznar, Rosa M^a; Mateo Pérez, M^a Rosario; Sáez de Alberniz Arregui, M^a Pilar (1997). "Santa Criz, una necrópolis romana de incineración en Eslava (Navarra)". *1^{er} Coloquio Internacional sobre la Romanización en Euskal Herria*, 823-841.
- Arméndariz Aznar, Rosa M^a; Mateo Pérez, M^a Rosario; Sáez de Alberniz Arregui, M^a Pilar (1995-96). "Primera campaña de excavación en el yacimiento de Santa Criz (Eslava-Navarra)". *Trabajos de arqueología Navarra*, N^a 12, 322-326.
- Bengoetxea Rementeria, Belén. (2017a). "Vivir en un yacimiento arqueológico. Un ejemplo de difusión de la Arqueología Urbana en la Comunidad Autónoma Vasca" *Revista Otarq: Otras Arqueologías*, Vol 2, 429-450.

- Bengoetxea Rementeria, Belén. (2017b). “La inclusión de la perspectiva de género en la asignatura “Introducción a la arqueología. De la teoría a la práctica” en, Ramiro Sánchez T. (comp), Ramiro Sánchez, M.T. (comp.) y Bermúdez Sánchez, P. (comp) (2017). *Evaluación de la Calidad de la Investigación y de la Educación Superior: libro de resúmenes XIV FECIES*, 182.
- Díaz-Andreu, Margarita (2014). “Historia del estudio del género en la Arqueología”, *Saguntum: Papeles del laboratorio de Arqueología de Valencia*, 15, Universidad de Valencia: 25-32.
- Díaz-Andreu, Margarita eta Sanz Gallego, Nuria (1994). “Women in Spanish Archeology”, *Archeological Papers of the American Anthropological Association* 5 (1): 121-130.
- Eusko Ikaskuntza (2006). *Asmo eta Jakinez Buletina*, 163 Zbk. Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia.
- Gobierno de Navarra (ed) (2004). *Trabajos de Arqueología Navarra, N° 17. Homenaje dedicado a María Ángeles Mezquíriz Irujo*. Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno de Navarra.
- González Marcén, Paloma (2000). “Mujeres, espacio y arqueología: una primera aproximación desde la investigación española”, *Arqueología espacial* 22, 11-22.
- Herrasti, Lourdes, Etxeberria, Francisco eta Berjón, Miguel Angel (2012). “Muerte violenta en 1822: una fosa común en Ocio (Zambrana, Álava)”. *Munibe (Antropología-Arkeologia)*, N° 63, 345-366.
- Llanos Ortiz de Landaluze, Armando (2003). “Armando Llanos Ortiz de Landaluze”. *Eusko Ikaskuntza*, 20.
- Montón Subías, Sandra eta Lozano Rubio, Sandra (2012): “La arqueología feminista en la normatividad académica”, *Complutum*, Vol. 23 (2), 163-176.
- Pavón León, Patricia eta Gogeochea Trejo, M^a del Carmen (2010): *Maestría en prevención integral del consumo de drogas: Metodología de la Investigación II*. Universidad Veracruzana. Xalapa.
- Pozo Sevilla, Cristina (2014-2015). “Arkeologia eta generoa”, EHUko Gradu Amaierakolan, ADDI plataforman argitaratua. <https://addi.ehu.es/handle/10810/21199>.
- Sáenz de Urturi Rodríguez, Francisca (1977). “Avance de las excavaciones arqueológicas de los Castros de Lastras (Caranca, Alava)”. *Crónica del XIV Congreso Arqueológico Nacional*, 633-640.
- Sáenz de Urturi Rodríguez, Francisca (1994). “Nuevas estelas discoidales en Álava”. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, N° 10, 125-150.
- Sáenz de Urturi Rodríguez, Francisca (2003). “Estela romana de Nanclares de la Oca (Iruña de Oca, Álava) y su entorno”. *Estudios de Arqueología Alavesa*, N° 20, 149-154.

- Sáenz de Urturi Rodríguez, Francisca (2017). "Parcela 21. Zanja para colocación de vallado". *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, Nº. 2017, 185.
- San José Santamarta, Sonia (1998). "Palacio de Aburruza (Tolosa)". *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, Nº. 1998, 423.
- San José Santamarta, Sonia (2010). "Yacimientos del Bronce Final-Edad de Hierro (Azkoitia, Azpeitia, Deba, Eskoriatza, Oiartzun): IV Campaña". *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, Nº 2010, 420-421.
- San José Santamarta, Sonia, Orue-Etxebarria Urkitza, Xabier. y Castro J. (2014). "Horno de reducción de mineral de hierro de Zelaitxueta: I Campaña". *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, Nº. 2014, 359-361.
- Sánchez Romero, Margarita (2005). *Arqueología y género*, Servicio de publicaciones de la Universidad de Granada, Granada.
- Sánchez Romero, Margarita eta Contreras Cortes, Francisco (coord) (2003). *Curso en Arqueología y género: Vida cotidiana, relaciones e identidades*. Departamento de Prehistoria y Arqueología e Instituto Universitario de Estudios de la Mujer, Universidad de Granada. <http://www.prehistoriayarqueologia.org/actividades/actividad.asp?9>
- Sanz Hernández, Alexia (2005): "El método biográfico en investigación social: potencialidades y limitaciones de las fuentes orales y los documentos personales". *Asclepio-Vol. LVII-1*: 99-115.
- Ugarte Lz. de Arkaute, Estitxu (2018). "Paquita Sáenz de Urturiri elkarrizketa". Alea, Araba [online, 2018-03-18]:<https://alea.eus/araba/1521115305072-gozamena-da-lokatz-artean-zeramika-puskak-aurkitzea>
- Unzu Urmeneta, Mercedes (1993-1994). "Aparcamiento Plaza San Francisco: seguimiento arqueológico". *Trabajos de arqueología Navarra*, Nº 11, 199-224.
- Unzu Urmeneta, Mercedes y Pérex Agorreta, M^a Jesús (1988). "Nuevo asentamiento de época romana en Navarra". *Espacio, tiempo y forma. Serie II, Historia antigua*, Nº 1, 323-332.
- Unzu Urmeneta, Mercedes, García-Barberena Unzu, Maria, Zuza Astiz, Carlos, Zuazúa Wegener, Nicolás, Andrés-Gallego, José y Pérex Agorreta, M^a Jesús (2017). "Proyecto de recuperación arqueológica del hospital de San Salvador de Ibañeta". *Trabajos de arqueología Navarra*, Nº 29, 251-259.
- Urteaga Artigas, M^a Mercedes, Alkain Sorondo, Pía. y Lasa, Rosario (1998). "Minería romana en Irún: Altamira y Belbio". *Boletín Arkeolan*, Nº 4, 6-9.
- Urteaga Artigas, M^a Mercedes. (2017). "El Museo Oiasso de Irun: las oportunidades de la frontera en la divulgación del pasado romano" *Boletín del Museo Arqueológico Nacional*, Nº Extra 35, 2011-2019.

- Urteaga Artigas, M^a Mercedes, Otero, Xabier. (2002). *Erromatar garaia*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua, Donostia.
- Zubiaur Carreño, F.J. (2001). “Alabanza de M^a Ángeles Mezquíriz, Premio Jordá 2001”. Oviedoko Unibertsitateko Paraninfoan emandako hitzaldia: <https://www.zubiaurcarreno.com/alabanza-ma-angeles-mezquiriz-premio-jorda-2001/> Kontsulta data: 2020ko otsailaren 5a.

6. BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

- Auñamendi Entziklopedia (2020). “Mezquíriz Irujo de Catalán, María Ángeles”. Auñamendi Entziklopedia [online]: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/mezquiriz-irujo-de-catalan-maria-angeles/ar-95615/> Kontsulta data: 2020ko otsailak 3.
- Auñamendi Entziklopedia (2020b). “Armendáriz Aznar, Rosa María”. *Auñamendi Editoriala* [online]: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/armendariz-aznar-rosa-maria/ar-24745/> Kontsulta data: 2020ko otsailak 5.
- Auñamendi Entziklopedia (2020c). “Urteaga Artigas, Mertxe”. *Auñamendi Editoriala* [online]: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/urteaga-artigas-mertxe/ar-134329/> Kontsulta data: 2020ko otsailak 3.
- Auñamendi Entziklopedia (2020d) “Zapata, Lydia”. *Auñamendi Editoriala* [online]: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zapata-lydia/ar-146042/> Kontsulta data: 2020ko otsailak 3.
- Dialnet Plus (2020). “María Ángeles Mezquíriz”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=1225162>
- Dialnet Plus (2020b). “Francisca Sáenz de Urturi Rodríguez”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=186105>
- Dialnet Plus (2020c). “Koro Mariezkurrena Gastearena”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=14469>
- Dialnet Plus (2020d). “Mercedes Unzu Urmeneta”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=223440>
- Dialnet Plus (2020e). “Rosa María Armendáriz Aznar”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=76956>
- Dialnet Plus (2020f). “Belén Bengoetxea Rementería”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=179924>

- Dialnet Plus (2020g). “*Lourdes Herrasti Erlogorri*”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=2400154>
- Dialnet Plus (2020h). “*María Mercedes Urtega Artigas*”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=261028>
- Dialnet Plus (2020i). “2020i”. “*Sonia San José Santamarta*” *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=256243>
- Dialnet Plus (2020j). “*Lydia Zapata Peña*”. *Universidad de la Rioja*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=256239>
- Martínez Artola, Alberto (2020). “*Sáenz de Urturi Rodríguez, Francisca*”. *Añamendi Entziklopedia* [online]: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/saenz-de-urturi-rodriguez-francisca/ar-119602/> Kontsulta data: 2020ko otsailak 3.